

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3922

EBAZPENA, 2020ko irailaren 16koa, HABEko zuzendariarena, 2020-2021 ikasturtean euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena eta horiek esleitzeko baldintzak eta prozedura arautzen dituena.

Uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duenak, bere 16. oinarrian ezarria dauka HABEko dirulaguntza emango duela, bere aurrekontu-bitartekoen muga barruan, Erregistroan inskribaturik dauden euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuak finantzatzeko, helduen euskalduntzegintzan jardunez, HABEko jarritako helburuak lor daitezen, HABEren zuzendari nagusiak ikasturte akademiko bakoitzaren hasieran dirulaguntzen deialdia egingo duelarik.

Ildo horretatik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2018-2020 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen 2018ko urtarrilaren 31ko Aginduaren bitartez, Hizkuntza Politika alorrean 7. helburu orokor bezala helduen euskalduntzea bultzatzea aurreikusten du, «47130 euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako dirulaguntzak» kodea duen ekintza-atalean. Plan hori garatzeko, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, 2020ko urtarrilaren 30eko Aginduaren bidez, 2020ko Dirulaguntzen Plan Orokorra onartu zuen, eta deialdi honetan aurreikusitakoak jasotzen dira bertan.

Bidezkoa da, beraz, 2020-2021 ikasturterako dirulaguntzen deialdia egitea eta finantzaketa-moduluak ezartzea, honen bidez euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei dagozkienak finkatuz.

Horregatik, aipatu xedapenek eta HABEren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak ematen dizkidaten eskumenak baliatuta, eta indarrean dauden azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak eta Dirulaguntzen Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, aurrerantzean DLO) eta Lege hori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2003 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduak ezartzen dutenaren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako 2020-2021 ikasturteko dirulaguntzen deialdia egitea, ebazpen honen I, II eta III. eranskinetan aurreikusitako oinarrietan ezarritako baldintza, prozedura eta formularioen arabera.

Bigarrena.– Jakinaraztea ezen, ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioketela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2020ko irailaren 16a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

I. ERANSKINA

1. oinarria.– Helburua eta zuzkidura ekonomikoa.

1.– Oinarri hauen helburua da 2020-2021 ikasturteko (2020ko urria eta 2021eko iraila bitarteko) euskara-ikastaroengatik euskaltegi pribatuei eta autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako dirulaguntzen baldintzak arautzea.

2.– Horrelako laguntzetan emango diren diru-kopuruak HABEren aurrekontuetan horretarako dauden partiden konturakoak izango dira: 22.158.000,00 euro, beraz. Era honetan banatzen da kopuru hori:

a) 19.038.000,00 euro, 6.1 oinarrian zehaztu euskaltegien berezko ekimenezko aurrez aurreko jarduera babesteko.

b.1) 675.000,00 euro, 6.2 oinarrian zehaztu autoikaskuntzarako zentroyen bere ekimenezko autoikaskuntzako jarduera babesteko.

b.2) 1.610.000,00 euro, 6.3 oinarrian zehaztu euskaltegien bere ekimenezko autoikaskuntzako jarduera babesteko.

c) 835.000,00 euro, 6.4 oinarrian zehaztu barnetegietako jarduera babesteko.

3.– Azpi-atal batetik bestera dirua pasatu ahal izango da, batean soberakinik egonda, bestean eginiko eskariei erantzuteko behar adina diru ez balego. Horrelakoetan a) eta c) azpi-atalek lehen-tasuna izango dute b.1) eta b.2) azpi-atalekiko.

Hala ere, diru-kopuru horiek eskari guztien beharrei erantzuteko behar bestekoa ez balitz, hainbanatu egingo da dirulaguntza onuradunen artean azpi-atal bakoitzeko emaitzak errespetatuz, a) eta c) azpi-atalak salbu, hauek batera eta maila berean hainbanatuko baitira. Hau guztia, nahiz eta a) edo c) azpi-ataletan bere baitako beharrei aurre egiteko behar beste baliabide izan.

2. oinarria.– Onuradunak.

1.– Deialdi honen bitartez banatuko diren laguntzen onuradun izan daitezke euskaltegi pribatuak eta autoikaskuntzarako zentro homologatuak, betiere ondoren zehazten diren baldintzak eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bateginean eta DLOren 13. artikuluan jasotakoak betetzen badituzte.

2.– Honako hauek dira bete beharreko baldintzak:

2.1.– Baldintza orokorrak.

a) Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroyen HABEren Erregistroan inskribatuta egotea, eta datu guztiak egunean edukitzea edo, dagokionean, deialdi honetako 3.4.c) oinarrian ezarritakoaren arabera eguneratzea.

b) DLOren 13. artikulua 2. atalean aurreikusitako egoeretan ez egotea, eta batez ere zerga guztiak ordainduta edukitzea eta egunean Gizarte Segurantzarekiko ordainketak, baita dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea ere. Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, automatikoki, behar hainbat aldiz, dirulaguntza eskatu duten entitateek bi betebeharrak horiek egunean dituztela. Hala ere, eskaria egiten duenak baimena emango ez balu, berak aurkeztu beharko ditu baldintza horiei dagozkien egiaztatgiriak.

c) Dirulaguntza-eskaria zuzen osatzea, deialdiaren III. eranskinean jasotako ereduaren arabera eta, eskariarekin batera 3. oinarrian eskatzen diren agiriak zuzen betetzea eta aurkeztea.

d) Dirulaguntza hauen onuradunek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko dituzte eta, ondorioz, ezin izango dituzte agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ikurak edo elementuak.

2.2.– Baldintza akademikoak.

a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren bitartez ezarritako Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) unez une aplikatzea.

b) Euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroetako ikasleek Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskura ditzaten, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko azaroaren 23ko Aginduak (EHAAREN 232. zk., abenduaren 7koa), Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko ekainaren 7ko Aginduak aldatua, ezartzen dituen prozedurak eta aipatu lehenengo Aginduaren 4.4 eta 5.2 artikuluetan oinarrituta ikasturtearen hasieran HABEren zuzendari nagusiak emango dituen jarraibideak unez une aplikatzea.

c) Material didaktikoari dagokionez, uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoa betetzea (EHAAREN 149. zk., uztailaren 31koa).

d) Irakaskuntzan erabiliko dituzten lokalek bete beharko dituzte aipatu 179/2003 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako baldintzak. Gainera, oinarri hauetan aipatzen diren laguntzak eskatzen dituztenek konpromisoa hartu beharko dute osasun-agintariek edo arlo horretan eskumena duten gainerako agintariek ezarritako prebentzio eta higiene-neurri guztiak betetzeko, oinarri hauetan aipatzen den deialdiaren bidez diruz lagundutako jarduerari dagokionez, COVID19ak eragindako pandemiari aurre egiteko, bai jardueraren antolamenduari dagokionez, bai eta jarduera gauzatzeko erabiltzen diren lokalen ezaugarriak dagokienez ere, eta jarduera horri aplikagarri zaion beste edozein neurri ere, betiere deialdiaren III. eranskinean jasotako konpromiso-adierazpenari jarraikiz. Neurri horiek betetzeak deitutako dirulaguntzen onuradun izateko baldintzaren izaera izango du.

e) Helduentzako euskalduntze-ikastaroak ematen dituzten irakasleek 179/2003 Dekretuak, 14. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Halaber, diruz lagundutako C2 mailako ikastaroetako irakasleek C2 mailako euskara-agiria edo baliokidea izan beharko dute; eta maila horretako ikasleek C1 mailako euskara-agiria edo baliokidea izan beharko dute.

f) Ikasleei matrikula-saria kobratu beharko diete. Ikasleek kopuru horren herena, gutxienez, ikastaroa hasi baino lehen edo beranduenik hasi eta lehenengo hamar eskola-egunetan ordainduta eduki beharko dute. Honetatik at geratzen dira matrikula erakunde batek ordaintzen dien ikasleak.

g) Euskaltegiek edo autoikaskuntzarako zentroek jasota eta egunean edukiko dituzte matrikulen banku-agiriak, ikasleek matrikulak garaiz ordaindu dituztela frogatzeko. Dirulaguntzen ondorioetarako, matrikula banku bidez ordaindu duten ikasleak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ordainagirian ordainketa nori dagokion ere nabarmen azaldu beharko da.

h) 2020-2021 ikasturterako HABEren zuzendariak ematen dituen jarraibideak bere osotasunean betetzea. Gainera, helduen euskalduntzean egiten duten jardun osoaren berri eman beharko diote HABEri.

i) Diruz lagungarria den jardueraren aldetik, deialdi honen II. eranskinean jasotzen diren irizpi-deak bete beharko dituzte.

j) Aurrez aurreko, jardun biko eta urrutiko aurrez aurreko talde-irakaskuntza ikastereduetan, COVID-19ren eraginez sortutako ezohiko egoera eta bete beharreko osasun-baldintzak kontuan hartuta eta deialdi honetarako salbuespen bezala, euskaltegiek ikastaro bakoitzaren hasieran gutxieneko ikasle-kopuru hauek bete beharko dituzte dirulaguntzetan onartuak izateko, talde bakoitza kokatua dagoen herriaren neurriaren arabera:

Biztanle-kopurua	< = 5.000	5.001 - 10.000	10.001 - 25.000	>= 25.001
Talde bakoitzeko gutxienekoa	5	6	7	8

Barnetegi erako ikastaroetako taldeek, edozein herritan antolatuta ere, 10.001-25.000 biztanleko herrietako tratara bera izango dute.

Halaber, 2020-2021 ikasturteko hasieran hau da, urrian, herri-tamainaren arabera dagokion ikasleen gutxieneko kopurua baino ikasle bat gutxiago daukaten taldeak ere dirulaguntzen xede izan litezke salbuespen gisa, hasieran irailean eta urrian hasitako taldeetako ikasle-kopurua aurreko ikasturteko sasoi berean izandakoa baino txikiagoa izanda, aldea % 20tik gorakoa bada.

Honelako talderik daukan euskaltegiak HABEren zuzendari nagusiari dagokion eskari arrazoi-tua helarazi beharko dio 2020ko urriaren 16ko epe mugarekin. Salbuespen hau irailean edo urrian hasitako ikastaroetako taldeetan bakarrik aplikatu ahal izango da.

k) HABEren zuzendari nagusiak ikasturtearen hasieran ebazpenez emango dituen jarraibideak bete beharko dituzte, jakinaraziko diren euskarriak erabiliz eta bertan adieraziko diren epeetan. Halaber, diruz lagungarria den jardueraren berri emateko, euskaltegiek edo autoikaskuntzarako zentroek HABEra luzatuko dituzten agiriaren bitartez, hauen berri eman beharko dute:

– Euskaltegiaren edo autoikaskuntzarako zentroaren oinarrizko informazioa, aurreko ikasturteko informazioarekiko aldaketarik eman bada.

– Euskaltegiaren edo autoikaskuntzarako zentroaren barruko karguak, aurreko ikasturteko informazioarekiko aldaketarik eman bada.

– Ikasturtean aritzen diren irakasle eta beste langile guztiak, hauen jarduera eta titulazioarekin batera.

– Ikasle guztiak, eta hauetako bakoitzaren oinarrizko datuak eta ezaugarriak. Halaber, ikasle bakoitzaren matrikula-ordainketak, ikasten emandako denbora eta aprobetxamenduaren berri. Barnetegiaren kasuan, ikaslea zein pentsio-motatan dagoen ere adieraziko da.

– Ikastalde bakoitzaren berri, bere ezaugarriak adieraziz (maila, ordutegia, egutegia, eta abar).

3. oinarria.– Eskarien aurkezpena, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.– Interesatuta dauden euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentroek, izaera juridikokoak izanik, dirulaguntza eskariak eta ondoko izapideak bide elektronikoa erabiliz soilik aurkeztuko dituzte, Euskadiko Autonomia-Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1045506> helbidean eskuragarri egongo den formularioaren

bitartez. Eskabidearekin batera aurkeztu beharko den dokumentazioa bide elektronikoa erabiliz soilik aurkeztuko da.

Identifikazio eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide hauetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>. Era berean, eskaria elektronikoki ordezkari baten bidez ere izapidetu ahal izango da, horretarako ordezkari Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>.

Hirugarrenen alta ere elektronikoki izapidetu beharko da, egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>.

2.– Dirulaguntza aitortu ondoren, gainerako eginkizunak eta izapideak helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

3.– Eskariak eta dagokion dokumentazioa aurkezteko epea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2020ko azaroaren 6ra bitartekoa izango da.

4.– Aurkeztu beharreko dokumentuak.

Hauek dira eskariekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak:

a) Jardueraren aurreikuspena: 2020-2021 ikasturterako talde-orduen, autoikaskuntzako matrikulen eta barnetegi-egunen aurreikuspena, deialdi honen 6. oinarrian zehaztutako irizpideen arabera osatutakoa. Beraz, bere ekimenezko jardueran urrian hasitako ikastaldeen orduen, autoikaskuntzako matrikulen zein barnetegi-egunen eta 2018-2019 ikasturtean azarotik aurrera hiru atal horietan onartutakoen batuketekin bat etorri beharko dute eskariko talde-orduen, autoikaskuntzako matrikulen edo barnetegi-egunen kopuruek.

b) 2020-2021 ikasturterako Plana.

c) Euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentro homologatuak HABEren euskaltegien eta autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan datu guztiak eguneratuak ez balitu, eskariarekin bat falta diren datuak ekarri beharko ditu.

d) Erantzukizunpeko adierazpenak. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezartzen duenaren arabera (1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua) eta DLOak ere ezartzen duenaren arabera, erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira honako betebeharrak hauek:

d.1.– Euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentro homologatuak ez dagoela azaroaren 17ko DLOren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeretan, ez duela zigorrik, ezta ere administrazioaren arloan dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik, eta ez dagoela laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legezko debekuetan sartuta, ezta sexua dela-eta eragindako bereizkeriengatik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

d.2.– Euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentro homologatuak administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik helburu berbera izan eta jaso ditzakeen laguntzak bateragarriak direla.

d.3.– Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentro homologatua ez dela parte dirulaguntzen itzulketagatik hasitako prozeduretan, ezta ere artean izapidetzen ari direnetan, eta horrelakoren

batean parte hartu izan badu, prozedura horiek amaituta daudela, eta horrela egokitu denetan, ondoriozko obligazioak ordainduta daudela.

d.4.– Euskaltegiak HABEri helarazten dizkion datuen gaineko interesdunei beren datuekin gauzaten duen tratamenduari eta transmisioari buruzko informazioa alde aurretik helarazi diela, alor horretan indarrean dagoen araudiak xedatutakoaren arabera.

e) Zerga-obligazioen eta gizarte-segurantzarekiko obligazioak egunean dituela zurrizko dokumentuak, baldin eta eskatzaileak ukatu badio HABEri baimena egiaztapen horiek zuzenean lortzeko.

4. oinarria.– Aurkeztutako eskariaren hutsuneak zuzentzea.

Aurkeztutako eskarian dokumenturen bat falta bada, edota okerren bat balego, eskaria luzatu duenari jakinaraziko zaio eta hamar eguneko epea emango okerrak zuzen ditzan, eta adierazi, horrela egin ezean, eskabideari uko egin zaiola ulertu beharko dela, dagokion Ebazpenaren bitartez Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 68. artikuluan jasotako baldintzetan.

5. oinarria.– Dirulaguntzen organo kudeatzailea.

HABEren zuzendaritza nagusiari dagokio, Kudeaketa Zerbitzuko Ekonomia eta Administrazio Unitatearen eta Ikuskatzailetzaren bitartez, deialdi honetan aurreikusitako kudeaketa-lanak burutzea.

6. oinarria.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Finantzaketa publikoa (Europako edo Estatuko Erakundeetatik, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi edo Udaletatik edo Administrazio Publikoaren baitako beste Erakunde Autonomoetatik edo zuzenbide pribatuaren menpeko erakunde publikoetatik datorrena), gehienez, diruz lagundutako jardunaren aurrekontu osoaren % 70 izango da.

1.– Euskaltegien berezko ekimenezko aurrez aurreko jarduerak.

Euskaltegien berezko ekimenezko aurrez aurreko jarduerari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ordu-kopuru onargarriaren arabera kalkulatu da, ordu horiei oinarri honetan zehaztutako moduluak aplikatuz.

Euskaltegi bakoitzari dirulaguntzetarako onartuko zaizkion aurrez aurreko talde-orduak 2018-2019 ikasturtean euskaltegi bakoitzak eman eta ikasturtearen bukaeran dirulaguntzaren kitapenean HABEK onartutzat aitortu zizkion talde-orduak izango dira, ikasturte honetarako aurreikusitakoekiko behetik % 30ekoa eta goitik % 7koa baino alde handiagorik ez badago. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, euskaltegiari onartuko zaion aurreikuspenaren gehiengoa urrian hasitako ikastaldeen orduen eta 2018-2019 ikasturtean azarotik aurrera onartutako ikastaldeen orduen batuketa izango da.

Behetik % 30eko eta goitik % 7ko alde hori gaintzen bada, nahiz gora nahiz behera, ordu onargarriak egokitu egingo dira, onartzen den alde horretatik gorako (% 7) nahiz beherako (% 30) proportzioa aplikatuz egokitu ere.

2019-2020 ikasturtean diruz lagundu gabeko euskaltegien kasuan, euskaltegiak 2020-2021 ikasturterako aurreikusitako ordu-kopurua onartuko da, betiere aurreikuspen horrek ez badu urrian hasitako taldeen orduak eta horiei erantsitako % 20ko gehikuntzak osatzen duten ordu-kopurua gaintzen.

1.1.– Euskaltegien aurrez aurreko ikastaldearen dirulaguntzaren oinarritzko modulua euskaltegiaren eskarian onartzen diren talde-ordu bakoitzeko 44,39 eurokoa izango da. Modulu hau aplikatuko zaie jardun biko talde onargarrietako tutoretza-saioei ere.

1.2.– Uda-barnetegien kasuan, egun osoko pentsioagatik (ostatua, gosaria, bazkaria eta afa-ria), eguneko eta ikasleko 21,40 euroko laguntza izango dute.

2.– Autoikaskuntzarako zentroen bere ekimenezko autoikaskuntzako jarduera.

Autoikaskuntzarako zentroen beren ekimenezko jarduerari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa matrikula onargarriaren arabera kalkulatu da, matrikula horiei oinarri honetan zehaztutako moduluak aplikatuz.

a) Eskariko matrikulak, hau da, urrian hasitako ikasleena gehi 2018-2019 ikasturtean azarotik aurrerako matrikulei dagokien proiektzioa, ikasleek burututako matrikula onargarrien proportzio berean doituko dira, betiere aipatu proportzioak gutxienez % 40ren bermea eta gehienez % 80ren muga izango dituelarik. Matrikula onargarriak Ebazpen honen II. eranskinaren 3. puntuan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko dira. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, autoikaskuntzarako zentroari onartuko zaion aurreikuspenaren gehiengoa urrian hasitako autoikaskuntzako matrikulen eta 2018-2019 ikasturtean azarotik aurrera onartutako autoikaskuntzako matrikulen batuketa izango da.

b) Doitutako kopuru hori oinarri bezala kontuan hartuta, laguntzarako matrikulak 2018-2019 ikasturtean bakoitzak eman eta HABEK onartutako berak izango dira, behetik % 30ekoa eta goitik % 7koa baino alde handiagorik ez badago.

c) Behetik % 30eko eta goitik % 7ko alde hori gainditzen bada, nahiz gora nahiz behera, doitutako matrikula onargarriak egokitu egingo dira, onartzen den alde horretatik gorako (% 7) nahiz beherako (% 30) proportzioa aplikatuz egokitu ere.

d) 2019-2020 ikasturtean diruz lagundu gabeko autoikaskuntzarako zentroen kasuan, autoikaskuntzarako zentroak 2020-2021 ikasturterako aurreikusitako matrikulak onartuko dira, betiere aurreikuspen horrek ez badu urrian hasitako matrikulek eta horiei erantsitako % 20ko gehikuntzak osatzen duten matrikula-kopurua gainditzen.

Autoikaskuntza bidez ikasten duten ikasleen jarduera, ebazpen honen II. eranskinaren 3.1.a) puntuan zehaztutako 190 eskola-orduko modulu estandarra osatu duen ikasleko 948,48 eurotan babestuko da. Aipatu deialdi honen II. eranskinaren 3.1.b) eta 3.1.c) puntuetan zehazten diren beste moduluak proportzionalki egokitu egingo dira, ikastaro-modulu onargarria izanik ere, jarduera osoa burutzen ez duen ikasleko.

3.– Euskaltegien bere ekimenezko autoikaskuntzako jarduera.

Euskaltegien beren ekimenezko autoikaskuntzako jarduerari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa matrikula onargarriaren arabera kalkulatu da, matrikula horiei oinarri honetan zehaztutako moduluak aplikatuz.

a) Eskariko matrikulak, hau da, urrian hasitako ikasleena gehi 2018-2019 ikasturtean azarotik aurrerako matrikulei dagokien proiektzioa, ikasleek 2018-2019 ikasturtean burututako matrikula onargarrien proportzio berean doituko dira, betiere aipatu proportzioak gehienez ere % 80ren muga izango duelarik. Matrikula onargarriak Ebazpen honen II. eranskinaren 3. puntuan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko dira. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, euskaltegiari onartuko zaion aurreikuspenaren gehiengoa urrian hasitako autoikaskuntzako matrikulen eta

2018-2019 ikasturtean azarotik aurrera onartutako autoikaskuntzako matrikulen batuketa izango da.

b) Doitutako kopuru hori oinarri bezala kontuan hartuta, laguntzarako autoikaskuntza-matrikulak 2018-2019 ikasturtean bakoitzak eman eta HABEk onartutako berak izango dira, behetik % 30ekoa eta goitik % 7koa baino alde handiagorik ez badago.

c) Behetik % 30eko eta goitik % 7ko alde hori gainditzen bada, nahiz gora nahiz behera, doitutako autoikaskuntza-matrikula onargarriak egokitu egingo dira, onartzen den alde horretatik gorako (% 7) nahiz beherako (% 30) proportzioa aplikatuz egokitu ere.

d) 2019-2020 ikasturtean diruz lagundu gabeko euskaltegien kasuan, euskaltegiak 2020-2021 ikasturterako aurreikusitako autoikaskuntza-matrikulak onartuko dira, betiere aurreikuspen horrek ez badu urrian hasitako matrikulek eta horiei erantsitako % 20ko gehikuntzak osatzen duten matrikula-kopurua gainditzen.

Autoikaskuntza bidez ikasten duten ikasleen jarduera, Ebazpen honen II. eranskinaren 3.1.a) puntuan zehaztutako 190 eskola-orduko modulu estandarra osatu duen ikasleko 948,48 eurotan babestuko da. Aipatu deialdi honen II. eranskinaren 3.1.b) eta 3.1.c) puntuetan zehazten diren beste moduluak proportzionalki egokitu egingo dira, ikastaro-modulu onargarria izanik ere, jarduera osoa burutzen ez duen ikasleko.

4.– Barnetegi iraunkorretako ikastaroen kasuan, eskolarako modulu horrez gain, eguneko 7,30 euroko modulua aplikatuko da pentsio erdia bada (bazkaria) eta eguneko 23,30 euro pentsio osoa denean (ostatua, gosaria, bazkaria eta afaria). Pentsio osoko ikasleen kasuan, ikastaroak dirauen bitartean eta euskaltegiak bideratuta, familia euskaldun batean bizi diren ikasleen kasuan, ikasle eta eguneko 6,50 euroko gehigarria jasoko du euskaltegiak. Halaber, urte osoan zehar barnetegia zabalik izateak dakartzan gastu orokorretarako, pentsioetarako modulu horiez gain, 2018-2019 ikasturteko dirulaguntzaren kitapenean lerro honetan onartutako % 5 gehituko da.

7. oinarria.– Dirulaguntzarako Ebazpena.

1.– HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bitartez erabakiko dira onuradun bakoitzari, ikasturte osorako eskariaren eta 6. oinarrian ezarritako irizpideen arabera, onartzen zaizkion talde-orduak, autoikaskuntzarako matrikulak, barnetegi egunak eta, ondorioz, bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa. Ebazpenak adieraziko du esleitutako zenbateko hori baldintzatuta egongo dela egingo diren azken doikuntzetara, datu errealen eta 12. oinarriak dioenaren arabera.

2.– Ebazpena 2020ko abenduaren 22a baino lehen jakinaraziko da. Epe horretan organo erabakitzaileak jakinaraziko ez balu, eskaria ez dela onartua izan ulertuko da.

3.– Izapide elektronikoa izanik, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 30.2 artikuluan xedaturikoari jarraikiz, aipatu ebazpen horren jakinarazpena egindakotzat joko da euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentro homologatuak jaso duela elektronikoki sinatzen duenean, eta kasu bakoitzean ezarritako epea hark jakinarazpeneko egintza jaso izana elektronikoki sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Nolanahi ere, aplikagarria den araudian aurreikusita dagoen baliabide edota posta elektronikoaren bidezko abisua aplikatuko da.

Interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren esku jartzen denetik hamar egun naturaleko epea igaro eta gero, interesdunak haren edukia eskuratzen ez badu, jakinarazpena ezetsizat joko da. Horrela, izapidea egindakotzat joko da eta prozedurak

aurrera egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak jakinarazita, jakinarazpena ikustea teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela egiaztatzen bada.

4.– Interesdun bakoitzari egin dakioken Ebazpenaren jakinarazpenaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira emandako dirulaguntzak eta horien onuradunak.

5.– Betiere, onuradunen aldeko dirulaguntza-aitorpena baldintzatuta egongo da dirulaguntzen itzulketa- edo zehapen-prozedura oro amaituta egotera, eta hala dagokionean, dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko obligazioak ordainduta izatera Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrarekin.

8. oinarria.– Beste dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honen kontura ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu horretarako beste edozein entitatek eman ditzakeen laguntzekin, betiere diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketa gertatzen ez bada.

2.– Gainfinantzaketa gertatuko balitz, edota finantzaketa publikoetan aurreikusitako mugak gaindituko balira, murriztu egingo da dirulaguntza, dagokion neurrira doitu arte.

3.– Gainfinantzaketa hori itzulketa egiteko obligazio bera eskatzen duten beste laguntzekin batera gertatuko balitz, itzuli beharreko diru-kopurua, proportzionala izango da, jarduera burutzeko kostu osoaren eta esleitutako laguntzaren araberako proportzioan.

9. oinarria.– Dirulaguntzak ikuskatzea eta jarraitzea.

HABEren Ikuskatzailtza ataleko langile baimenduek noiznahi ikuska ditzakete euskaltegiak eta autoikaskuntzarako zentroak berauek emandako datuak egiaztatzeko, eta bertako arduradunari eska diezazkiokete eskolak emateko erabiltzen dituen lokalei buruzko berriak, eta bai ikasle, ikastalde, irakasle, beste langile eta erabiltzen duten material didaktikoari buruzkoak ere.

HABEren Ikuskatzailtzak aldian-aldian egiten dituen ikusketetan jasotako informazioa euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak HABEri ematen dion informazioarekin bat ez badator, edo deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, HABEren zuzendari nagusiari helaraziko dio horren berri, besterik ezean, aitortutako dirulaguntzei dagozkien ondorioak erabaki ditzan.

Ikusketan bertan jasotako informazioa, edo ikuskatzaileak gehienez ere 15 eguneko epean euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak emateko eskatutakoa, ikusketa-aktan jaso beharko du ikuskatzaileak, euskaltegiaren edo autoikaskuntzarako zentroaren arduradunak eta ikuskatzaileak sinatuta.

Ikusketa baten ondorioz ez-betetze bat ohartuko balitz, HABEren zuzendari nagusiak behin betiko erabakia hartu baino lehen, euskaltegiaren edo autoikaskuntzarako zentroaren arduradunari ikuskatutako egoera jakinarazi beharko dio, honek hamabost eguneko epean dagozkion alegazioak egin ahal izateko.

10. oinarria.– Dirulaguntzen ordainketa.

1.– Dirulaguntzak jarraian azaltzen diren epe eta eran ordainduko dira:

a) Dirulaguntzen Ebazpena ematen den momentuan erabakitakoaren % 23,71 ordainduko da.

b) 2021eko martxotik aurrera, 2020ko urritik aurrerako gastuen bitartez lehen ordainketan jasotako dirulaguntza osoa egoki zuritu ondoren, dirulaguntzaren Ebazpenean ezarritako zenbatekoaren % 66,29 ordainduko da.

c) Ebazpenean erabakitako gainerako dirulaguntza, bakoitzari dagokiona eta, hala behar denean, HABEren zuzendariak egingo duen kitapen-ebazpenaren arabera, onuradunak bere jardun osoa ondo zuritu eta agiriak bidali ondoren, ordainduko da.

2.– Dirulaguntzaren ordainketa baldintzatuta egongo da, beti ere, Euskal autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo erakunde autonomoek ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitzera.

11. oinarria.– Zuriketa.

1.– HABEren dirulaguntza behar bezala zuritua dagoela ulertuko da, DLOren 30. eta 31. artikuluen arabera, jarraian adierazten diren kontzeptuengatik bidalitako zuri-agiri guztien batuketa, gutxienez, emandako dirulaguntza adinakoa bada.

HABEren dirulaguntzen zuriketarako honako gastu hauek onartuko dira eta bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko dira. Dena den, HABEK beharrezkotzat joko balu, laginketa tekniken bidez, badu eskatzerik gastu hauen agirien originalak edo kopia konpultsatuak:

a) Langileen soldatak eta Gizarte Segurantzako gastuak. Gastu hauen zuriketari dagokionez, euskaltegien kudeaketarako aplikazio informatikoan jasota dauden langileak soilik hartuko dira kontuan. Langileen gastuak, euren ordainketarako banku bidezko zerrendak (edo nominak), eta Gizarte Segurantzari eta PFEZari dagozkion ordainketen agiriak aurkeztuz zurituko dira. Banka elektronikoaren bidez eginiko eragiketen agiriak dagozkien azterna elektronikoen kodeak eduki behar dituzte eta bankuaren ordainagirik, zigilua edo baliozkotze mekanikoa. Langileen gastuen bitartez Ebazpen honetako 6.1, 6.2 eta 6.3 oinarritan zehaztutako jarduerak babesteko emandako dirulaguntzaren % 75 gutxienez zuritu beharko da.

b) Lokalen alokairuak: soilik euskaltegien edo autoikaskuntzarako zentroen Erregistroan jasotako lokalen alokairuak hartuko dira kontuan. Legezko gutxienekoak (BEZ, Ogasunerako atxikipena...) betetzen dituzten agiriak soilik onartuko dira. Alokatzailera erakunde publikoa denean, bankuaren bidez luzaturiko errezeptuak onartuko dira.

c) Mantenu-gastuak: barnetegiko pentsiotarako dirulaguntza onartua duten euskaltegiek, eta horretarako esleitutako kopurua, gehienez.

d) Azpiegituren garbiketa-gastuak eta mantentze-lanak.

e) Gastu didaktikoak: klaseak ematearekin zuzenki lotuta dauden gastu arruntak (material didaktikoa, liburuak, dokumentazioa, etab.).

f) Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko helburuarekin sortutako beste edozein gastu. Horretarako onuradun bakoitzak deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzaren % 3 gutxienez jarraian zerrendatzen diren hobekuntza-prozesuetan erabili izana ziurtatu beharko du: irakasleen formazioan (barruko zein kanpoko formazio-jarduerak), Informazio eta Komunikaziorako Teknologietan (IKT), materialgintzan eta kudeaketaren hobekuntzan. Dena den, euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentroyen batek ikusten badu, behin-behineko egoera medio, hobetzeko jardueretako agiriarekin ez duela portzentaje hori zuritzerik izango, memoria arrazoitua helaraziko dio HABEren zuzendari nagusiari 2021eko urriaren 15eko epe-mugarekin.

2.– Bestalde, Ebazpen honen 2. oinarriko 2.1.d) puntuan zehaztutako baldintza betetzeari begira, euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak helduen euskalduntze-alorreko zereginetan ikasturtean izan dituen sarrera eta gastu guztien balantzea azaldu beharko dio HABEri izapide elektronikoa dagoen formularioari jarraikiz.

3.– Halaber, euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak 2020-2021 ikasturteko Memoria aurkeztu beharko du.

4.– Agiri horiek aurkezteko epeak honako hauek izango dira:

a) 2021eko otsailaren 12a, ikasturteko lehen ordainketan jasotako dirulaguntza zuritzeko behar besteko gastuen zuri-agiriak aurkezteko.

b) 2021eko urriaren 15a, gainerako dirulaguntza zuritzeko behar besteko gastuen zuri-agiriak eta oinarri honetako 2. eta 3. puntuetan eskatutakoa aurkezteko.

5.– Zuriketaren edozein fasetan egindako ez-betetzeak dirulaguntzarako eskubidea galtzea eta jasotako zenbatekoa itzultzea ekarriko du, ez-betetzeak dituen gainontzeko lege-ondorioez gain.

12. oinarria.– Dirulaguntzaren kitapena.

Ikasturtea bukatu ondoren, dirulaguntzaren kitapena honela egingo da:

1.– Ikasturteko behin betiko datu errealak (emandako eskolak eta barnetegi-egunak) eta gastuen egiaztagiriak jaso ondoren, dirulaguntzaren kopurua erabakitzeko baliatu den edozein baldintzak behera egin duela ikusten bada, dirulaguntzak emateko erabakia aldatu egingo da, HABEren zuzendari nagusiaren kitapen-ebazpenaren bitartez laguntza-kopuruak doitu. Aipatutako doikuntza era honetan egingo da:

1.1.– Emandako talde- eta ikasle-orduak eta barnetegi-egunak esleitutakoak baino gutxiago izan badira, horiek hartuko dira aintzat (bere ekimenezko jarduerari dagokionez, Ebazpen honen 6.1, 6.2 eta 6.3 oinarrietan finkatu irizpideak aplikatuta).

1.2.– Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro bakoitzari esleitutako diru-kopurua deialdi honetako 11. oinarrian zehaztutako kontzeptuen bitartez, eta oinarri horretan ezarritako proportzio-mugak errespetatuz, zuritzen ez bada edota 6. oinarrian zehaztutako % 70eko muga gainditzen bada, doitu egingo da, era berean, esleitutako dirulaguntza.

2.– Dirulaguntza emateko kontuan izandako edozein baldintza aldatu egiten bada, eta edozein kasutan, horrekin batera beste administrazio batzuen edo erakunde publiko edo pribatuaren dirulaguntzak eskuratu baldin badira, edo, bestela, helburu bera aurrera eramateko bestelako diru-sarrera edo baliabideak lortu badira, laguntza ematea ekarri duen erabakia aldatu egin ahal izango da, betiere deialdi honek onuradun izateko ezartzen dituen gutxieneko baldintzak betetzen badira, eta gauzatuko den aldaketak dirulaguntza jasotzeko funtsezkoak izan diren aspektuei eragiten ez badie edo dirulaguntza jasotzeko erabakigarria izan diren aspektuei ezta ere.

13. oinarria.– Onuradunaren betebeharrak.

Ebazpen honetan araututako dirulaguntzen onuradunek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan eta DLOren 14. artikuluan araututako betebeharreko hauek izango dituzte:

1.– Jarduera aurrera eramatea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

2.– Dirulaguntza eman duen erakundearen aurrean justifikatzea emate hori eragin duten edo laguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak betetzen direla eta jarduera bera aurrera eramango dela.

3.– Oinarri hauetan eta deialdiaren beste eranskinetan ezarritakoak, ondoren zehazten diren xedapenetan oinarrituz: uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen dituenak (EHAA 149 zk., uztailaren 31koa); Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren bidez (EHAA 144. zk., uztailaren 31koa) ezarritako Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumaren arabera aritzea diruz lagundutako jardueretan, baita Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko azaroaren 23ko Aginduak (EHAA 232 zk., abenduaren 7koa), Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko ekainaren 7ko Aginduaren bidez aldatutakoak, ezartzen dituzten HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak eta aipatu lehenengo Aginduaren 4.4 eta 5.2 artikuluetan oinarrituta ikasturtearen hasieran HABEren zuzendari nagusiak emango dituen jarraibideak ere.

4.– Azaroaren 11ko 1/1997ko Legegintzako Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenaren arabera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Kontu Publikoen Euskal Epaimahaiak deialdi honen bitartez esleitutako dirulaguntzak kontrolatzeko dituzten bere eginbeharrak betetzeko eska ditzaketen informazio oro ematea. Halaber, xedapen horretan ezarritakoaren arabera eta DLOren arabera, beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk, helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea HABEri. Era berean, laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin baldin bada, horren berri ematea laguntza eman duen erakundeari.

5.– Onuradunek publizitate egokia eman beharko diote aitortutako dirulaguntzaren izaera publikoari, DLOren 18.4 artikuluan araututakoari jarraikiz.

14. oinarria.– Arau-haustek eta ez-betetzek.

Edozein kasutan, deialdi honetako onuraduna lotuta dago azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean eta DLOren 13. artikuluan jasotako oinarriko xedapenetan zehaztuta dauden lege-hausteen eta ez-betetzeen erregimenarekin.

Ez-betetze kasuetan, onuradunak jasotako diru-kopurua, bere legezko interesekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli beharko du, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (1992ko otsailaren 7ko EHAA) ezarritakoaren arabera.

15. oinarria.– Datuen tratamendua.

Dirulaguntza-deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak eta egiaztatze-prozeduran sortzen direnak, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2016/679 (UE) Erregelamenduak araututakoari jarraikiz, «Euskaltegien eta Autoikaskuntzarako Zentro Homologatuen Erregistroaren kudeaketa» eta «Ikaslegoaren kudeaketa» izeneko tratamenduetan tratatuko dira, ondoren zehazten diren helburuetarako:

– HABEk euskaltegien eta autoikaskuntzarako zentro homologatuen finantzaziorako bideratzen dituen dirulaguntzen kudeaketarako.

– HABEri atxikita dagoen euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroa kudeaketarako.

– HABEk egingo duen euskaltegien eta autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleen kudeaketarako: ikas-prozesua, euskara-mailaren egiaztapena eta dirulaguntzaren proposamena.

HABEren zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da legez ezarritako betebeharrak gauzatzeko eta interes publikokoa den jarduera sustatzeko.

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Halaber, bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezake helbide honetan: <http://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu/>.

16. oinarria.– Aplikagarriak diren arauak.

Ebazpen honetan aurreikusitakoaz gain, azaroaren 11ko 1/1997ko Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak eta DLOn jasotako oinarrizko xedapenek ezarritakoa erabiliko da.

II. ERANSKINA

IKASTURTEA ETA IKASTARO-MODULUAK

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma ezartzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren arabera, honako hauek dira, HABEren dirulaguntzen deialdian partaide izateko, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu guztiek 2020-2021 ikasturtean euskara-ikastaroak antolatzeko jarraitu beharreko irizpideak:

1.– Ikasturtea.

Euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentro homologatuen ikasturtea, 2020ko urriaren 1ean hasi eta 2021eko irailaren 30ean amaituko da. Betiere, helduen euskalduntzearen antolaketaren baitan, irizpide hauen ardatzetan:

– Irailean zehar hasi eta urritik aurrera luzatzen diren ikastaroak, hurrengo ikasturteko zat hartuko dira. Ikastaro hauen iraileko orduak dirulaguntzetan onartuak izateko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Taldeek dirulaguntzen deialdi honen 2. oinarriko 2.2.j) puntuan taldeak antolatzeko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua izan beharko dute.

b) Taldeei matrikulazioaren jarraipenerako aplikazio informatikoan aipatutako gutxienerako ikasle-kopurua betetzen denean hasierako itxiera eman beharko zaie.

c) Diruz lagunduko diren orduak gutxienerako ikasle-kopurua bete eta hasierako itxiera ematen den egunetik ikastaroaren azken egunera artekoak izango dira.

– Iraila baino lehen hasi eta urritik aurrera luzatzen diren ikastaroak, bi ikasturtetan zatituko dira, irailaren 30era bitartekoa batean eta urriaren 1etik aurrerakoa beste ikasturtera bilduz.

Matrikulazioaren jarraipenari dagokionez, HABEren zuzendari nagusiak ikasturtearen hasierako ebazpenaren bitartez jakinaraziko ditu urrian hasten diren ikastaroen datuak aurkezteko azken eguna, baita azarotik aurrera hasten diren ikastaroen datuak aurkezteko epeak ere.

2.– Aurrez aurreko ikasteredua.

Aurrez aurreko ikastereduen oinarria taldea da, gutxienez irakasle baten ardurapean ikasgela batean aurrez aurre eta taldeko ikasle guztiekin batera ikastaroa burutzen duen taldea, hain zuzen ere. Dirulaguntzaren esleipenean, deialdi honen I. eranskinaren 2.2.j) atalean araututako gutxienerako ikasle-kopuruak betetz gero, taldearen ordu teorikoak eta kitapenean burututakoak hartuko dira kontuan. Irakasleari taldean emandako orduak aitortuko zaizkio eta taldean aritutako irakasle guztien orduen batuketa gehienez taldean emandakoak izango dira.

Hala ere, baliteke, COVID-19ren eraginez sortutako ez-ohiko egoera eta herri-administrazioek emandako osasun-neurriak bete ahal izateko, taldea onargarria izan dadin, deialdiaren 2.2.j) atalean araututako gutxienerako ikasle-kopuruarekin, guztiekin batera, ezin aurrez aurre jarduera burutzea. Kasu hauetan, salbuespen-gisa, taldearen jarduera modu presentziala eta ez presentziala uztartuz antola daiteke.

Dena den, ikasgelaren edukiera mugatuagatik taldeko ikasle guztiak batera aurrez aurre aritzea ezinezkoa denean, salbuespenez HABEek lehenesten duen aukera taldearen jarduera modu presentziala eta ez presentziala, biak uztartuta ematekoa, euskaltegiak baztertzen badu, taldeko

ikasleak multzo txikiagoetan banatuz antola dezake taldearen jarduera euskaltegiak, bakoitzak eskuragarri dituen azpiegitura eta baliabideen arabera. Antolaketaren nolakotasunak dirulaguntzaren onuradunek erabakiko dituzte. Dirulaguntzen esleipenean salbuespenezko arau honen babesean antolatutako taldearen ordu teorikoak eta kitapenean burututakoak soilik hartuko dira kontuan, eta ez euskaltegiak antolatutako azpimultzoetakoak.

Salbuespenezko egoera horretan antolatuko diren ikastaldee 19 kolektiboa jarriko zaie matrikulazioaren jarraipenerako Q87 izeneko aplikazioan.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean maila bakoitzerako ezarritako erreferentziatzko irakastorduen kopuruak kontuan hartuta, euskaltegiek antolatuko dituzten ikastaroek ondoren zehazten diren gutxienekoak bete beharko dituzte:

2.1.– Urritik ekainera bitarteko ikastaroak.

a) Barnetegi iraunkorretako barnetegi ikastaroak: egunean 6 irakastordu eta gutxienez 80 irakastordu osatzen dituzten ikastaroak.

b) Euskaltegietako eta barnetegi iraunkorretako kanpo ikastaroak: A1 mailan gutxienez 125 irakastordu jarraian eta A2, B1, B2, C1 eta C2 mailetan gutxienez 165 irakastordu jarraian osatzen dituzten ikastaroak.

2.2.– Udako ikastaroak, ekainetik irailera bitartekoak.

a) Euskaltegietako eta barnetegi iraunkorretako udako kanpo ikastaroak: gutxienez 80 irakastordu era jarraituan eta zatikatu gabe.

b) Euskaltegietako eta barnetegi iraunkorretako udako barnetegi ikastaroak: 2, 3 edo 4 aste-koak eta egunean, gehienez, 8 irakastordu.

c) Baldintza hauetatik kanpo ondoko udako ikastaro bereziak antolatu ahal izango dira udan ekainetik irailera bitartean B1, B2, C1 eta C2 mailetan, zenbait kolektibo edo helburu zehatzetarako direnean eta alde zuzenetik HABEren zuzendari nagusiaren onarpena behar ez dutenak:

c.1) Udako aurrez aurreko ikastaro trinkoak: gutxienez 30 irakastordu, era jarraituan eta zatikatu gabe. Ikastaro hauetako ikasle guztien abiapuntua, salbuespenik gabe, lortu nahi den mailaren aurreko azpimaila izango da.

c.2) Udako barnetegi ikastaroak: aste beteko udako barnetegiak eta egunean gutxienez 8 irakastordu. Ikastaro hauetako ikasle guztien abiapuntua, salbuespenik gabe, lortu nahi den mailaren aurreko azpimaila izango da.

c.1) eta c.2) azpialde hauetako udako ikastaro bereziek, HABEren dirulaguntzapean onartuak izateko, maila burutzeko eta trebetasun zehatzak lantzeko helburua izan behar dute eta ikasleek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

– Ikasturtean zehar euskaltegiren batean ikasitako ikasleak izan.

– Euskara-mailen agiriak eskuratzeko ikasturteko lehen azterketa-deialdian aurkezteko aukerarik izan ez duten edo egiaztatze-probak gainditu ez dituzten ikasleak izan.

2.3.– Maila burutzeko ikastaroak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduak ezarzen duen Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumaren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak burutzeko helburu zuzena duten ikastaroak:

a) A1 maila burutzeko helburua duten ikastaroak: gutxienez 60 irakastordu era jarraituan eta zatikatu gabe; ikasle guztien abiapuntua A1A0 salbuespenik gabe.

b) A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak burutzeko helburua duten ikastaroak: gutxienez 120 irakastordu era jarraituan eta zatikatu gabe; ikasle guztien abiapuntua, salbuespenik gabe, burutu nahi den mailaren aurreko azpimaila.

Aurreko puntuetan zehaztutako aurrez aurreko ikastaro-moduluetako orduen kontaketa emandako irakastordua izango da, hauen arteko atsedenaldiak kanpoan utzita.

3.– Tutorizatutako autoikaskuntza ikasteredua.

Tutorizatutako autoikaskuntza ikastereduan oinarria ikaslea da. Dirulaguntzetarako, berriz, esleipenean ikasleak egiten duen matrikula izango da oinarria eta kitapenean atal honetako 3.2 azpiatalean zehaztutako irizpideen arabera burututakoa izango da.

Autoikaskuntza burutzeko euskaltegiek edo autoikaskuntzarako zentroek IKTen bidezko plataformak erabili ditzakete eta ikaskuntza hiru ataletan banatuko da:

– Ikasleak bakarkako lana egiteko saioak. Atal honetan ikasleak bakarka egindako jarduera bilduko da. Halaber, euskaltegien edo autoikaskuntzarako zentroen erabakiz, ikasleen arteko interakzioa bultzatuz trebetasun zehatzak lantzeko helburuarekin taldean burutu daitezkeen jarduerak ere bilduko dira. Honelakoetan, ekintza horien burutzapenean taldean emandako orduak parte hartu duen ikasle bakoitzari zenbatuko zaizkio. Dirulaguntzetarako kasu guztietan bakarkako saioetako orduak atal honetako 3.2 azpiatalean zehaztutako irizpideen arabera hartuko dira kontuan gehienez.

– Mintzamina edo ikasleen arteko interakzioa lantzeko saioak. Atal honetako saioetan euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak ikasleak taldeetan elkartuta burutzen saiatuko dira. Saio hauetan ikasleak hartu dituen orduak zenbatuko zaizkio ikasle bakoitzari. Irakasleari, berriz, atal honetan ikasleekin emandako orduak aitortuko zaizkio. Dirulaguntzetarako mintzamina edo ikasleen arteko interakzioa lantzeko saioetako orduak atal honetako 3.2 azpiatalean zehaztutako irizpideen arabera hartuko dira kontuan gehienez.

– Tutoretza-saioak. Ikasle bakoitzarekin burutuko dira. Saio hauetan ikasleak hartu dituen orduak zenbatuko zaizkio ikasle bakoitzari. Irakasleari, berriz, atal honetan ikasleekin emandako orduak aitortuko zaizkio. Dirulaguntzetarako tutoretza-saioetako orduak atal honetako 3.2 azpiatalean zehaztutako irizpideen arabera hartuko dira kontuan gehienez.

3.1.– Ikastaro-moduluak.

Euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek antolatu ditzaketenak:

a) 190 eskola-ordu matrikula bakoitzeko, 9 hilabetez bakarlanean, mintza- eta tutoretza-saioetan banatuta eta hasiera hilabetea urria, azaroa, abendua edo urtarrila delarik. Ikasle bakoitzeko ikasturtean zehar matrikula bakarra onartuko da.

b) 75 eskola-ordu matrikula bakoitzeko, 3 hilabetez bakarlanean, mintza- eta tutoretza-saioetan banatuta eta hasiera hilabetea urria, urtarrila, apirila edo uztaila delarik. Matrikula bakoitza 190 eskola-orduko modulu estandarren 0,40 izango da.

c) 25 eskola-ordu matrikula bakoitzeko udako ikastaro berezia, bakarlanean, mintza- eta tutoretza-saioetan banatuta, uztailetik irailera bitartean B1, B2, C1 eta C2 mailetan, zenbait kolektibo edo helburu zehatzetarako denean. Matrikula bakoitza 190 eskola-orduko modulu estandarren 0,13 izango da azpiatal honetako udako autoikaskuntzako ikastaro bereziek, HABEren dirulaguntzapean onartuak izateko, maila burutzeko eta trebetasun zehatzak lantzeko helburua izan behar dute eta ikasleak ondoko baldintzak bete behar ditu:

– Ikaslearen abiapuntua, salbuespenik gabe, lortu nahi den mailaren aurreko azpimaila izango da.

– Ikasturtean zehar euskaltegiren batean ikasitako ikaslea izan.

– Euskara-mailen agiriak eskuratzeko ikasturteko lehen azterketa-deialdian aurkezteko aukerarik izan ez duen edo egiaztatze-probak gainditu ez dituen ikaslea izan.

– Ikasleko uztailetik irailera bitartean matrikula bakarra onartuko da.

3.2.– Bestelako baldintzak.

Ikasleak bakarlanean emandako ordutzat astean 10 ordu arteko jarduna onartuko da dirulaguntzetarako. Beraz, ikastaroaren gehieneko orduak eman eta hartutako mintza-saio edo ikasleen arteko interakzioa lantzeko saioa eta tutoretzakoak gehi ikasleak bakarlanean emandako orduen batura izango da.

Gainera, ikasle bakoitzaren jardueragatik diruz lagunduko diren 6 ordutatik batek, gutxienez, hartutako mintza-ordukoa edo ikasleen arteko interakzioa lantzekoa izan beharko du. Salbuespen gisara, A1 eta A2 mailetara bitarteko jardueran diruz lagunduko diren 10 ordutatik batek, gutxienez, izan beharko du mintzakoa edo ikasleen arteko interakzioa lantzekoa. Mintzamen-saioak edo ikasleen arteko interakzioa lantzekoak aurrez-aurre eta euskaltegian edo autoikaskuntzarako zentroan zein IKTen bidezko bideokonferentziaz burutuko dira. Kasu bietan, aurrez aurreko edo bideokonferentziaz eginiko mintza-saioak edo ikasleen arteko interakzioa lantzekoak ikastaroaren zehar indarrean egongo diren asteko egun eta ordutegi zehatzetan burutuko dira.

Tutoretza-saioetan, bakarlanean emandako 10 orduko, gehienez ere, 30 minutu lagunduko dira diruz. Tutoretza-saioak aurrez aurre zein IKTen bidezko bideokonferentziaz burutuko dira.

HABEko teknikariek edozein unetan dirulaguntzaren onuradunek autoikaskuntza bideratzeko erabiltzen dituzten plataformetara sarbidea izango dute, burutzen diren jarduerak ikusteko.

Euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen kasuan, dirulaguntzetarako ikasle/orduak kontabilizatzerakoan, bakarkako jardun, mintza-saioei edo ikasleen arteko interakzioa lantzeko saioei eta tutoretza-saioei dagokienez, eman eta gauzatu ez den ordua ez zaio ikasleari emandakotzat jarriko datutegian.

IKTen bidezko ikaskuntza-prozesuak bere osotasuna gorde dezan, trebetasunen arteko oreka gorde beharko da, 179/2003 Dekretuak bere 6. artikuluan esaten denari jarraituz, non gutxieneko bezala eskatzen baita «erabilitako sistemak aurrerapen egokia eta orekatua bermatzea trebetasun guztietan eta bakoitzean, mintzamina barne».

4.– Jardun biko ikasteredua.

Jardun biko ikastereduaren oinarria taldea da, gutxienez irakasle baten ardurapean ikasgela batean aurrez aurre eta taldeko ikasle guztiekin batera ikastaroari dagozkion taldeko jarduerak burutzen dituen taldea, hain zuzen ere, eta horrekin batera, ikasle bakoitzak bakarka burutu behar

duen jardunarekin eta ikasleen tutoretza-saioekin osatzen den ikasteredua da. Dirulaguntzaren esleipenean, deialdi honen I. eranskinaren 2.2.j) atalean araututako gutxieneko ikasle-kopuruak betez gero, taldearen aurrez aurreko ordu teorikoak eta gehienez atal honetako c) azpiataleko irizpidearen arabera tutoretza-saioetako orduak hartuko dira kontuan. Kitapenean, berriz, taldearen aurrez aurreko jardunean burututakoak eta gehienez atal honetako c) azpiataleko irizpidearen arabera ikasleek burututako tutoretza-saioetako orduak hartuko dira kontuan. Irakasleari, batetik, taldean aurrez aurreko jardunean emandako orduak aitortuko zaizkio eta taldean aurrez aurreko jardunean aritutako irakasle guztien orduen batuketa gehienez taldean emandakoak izango dira; eta bestetik, gehienez atal honetako c) azpiataleko irizpidearen arabera burututako tutoretza-saioetan ikasleekin emandakoak.

Hala ere, baliteke, COVID-19ren eraginez sortutako ez-ohiko egoera eta herri-administrazioek emandako osasun-neurriak bete ahal izateko, taldea onargarria izan dadin, deialdiaren 2.2.j) atalean araututako gutxieneko ikasle-kopuruarekin, guztiekin batera, ezin aurrez aurre jarduera burutzea. Kasu hauetan, salbuespen-gisa, taldearen jarduera modu presentziala eta ez presentziala uztartuz antola daiteke.

Dena den, ikasgelaren edukiera mugatuagatik taldeko ikasle guztiak batera aurrez aurre ari-tzea ezinezkoa denean, salbuespenez HABEk lehenesten duen aukera taldearen jarduera modu presentziala eta ez presentziala, biak uztartuta ematekoa, euskaltegiak baztertzen badu, taldeko ikasleak multzo txikiagoetan banatuz antola dezake taldearen jarduera euskaltegiak, bakoitzak eskuragarri dituen azpiegitura eta baliabideen arabera. Antolaketaren nolakotasunak dirulaguntzaren onuradunek erabakiko dituzte. Dirulaguntzen esleipenean taldearen aurrez aurreko ordu teorikoak, ez azpimultzoetakoak, eta gehienez atal honetako c) azpiataleko irizpidearen arabera tutoretza-saioetako orduak hartuko dira kontuan. Kitapenean, berriz taldearen aurrez aurreko jardunean burututakoak, ez azpimultzoetakoak, eta gehienez atal honetako c) azpiataleko irizpidearen arabera ikasleek burututako tutoretza-saioetako orduak hartuko dira kontuan.

Salbuespenetzko egoera horretan antolatuko diren ikastaldee 19 kolektiboa jarriko zaie matrikulazioaren jarraipenerako Q87 izeneko aplikazioan.

Bestalde, HABEren dirulaguntzen barruan onartuak izan daitezten, ikastaro hauek, gutxienez, hiru hilabeteko iraupena izan behar dute aurrez aurreko jardunean, bakarkako jardun tutorizatuan eta tutoretza-saioetan banatuta:

- a) Aurrez aurreko jardunean, gutxienez, 40 eta gehienez 120 irakastordu.
- b) Bakarkako jardun tutorizatuan, gutxienez, aurrez aurreko jardunaren irakastorduen kopurua. Atal hau ez da diruz lagunduko.
- c) Tutoretza-saioetan, aurrez aurreko jardunean emandako 10 orduko, gehienez ere, 30 minutu lagunduko dira diruz.

Tutoretza-saioak aurrez aurre edo bideokonferentziaz egin ahal izango dira.

5.– Urrutiko aurrez aurreko talde-irakaskuntza.

Urrutiko aurrez aurreko talde-irakaskuntzaren oinarria taldea da, gutxienez irakasle baten ardurapean IKTen bidezko plataformak erabiliz taldeko ikasle guztiekin batera ikastaroa burutzen duen taldea, hain zuzen ere. Dirulaguntzaren esleipenean, deialdi honen I. eranskinaren 2.2.j) atalean araututako gutxieneko ikasle-kopuruak betez gero, taldearen ordu teorikoak eta kitapenean burututakoak hartuko dira kontuan. Irakasleari taldean emandako orduak aitortuko zaizkio eta taldean aritutako irakasle guztien orduen batuketa gehienez taldean emandakoak izango dira.

5.1.– Ikastaro-moduluak.

Aurrez aurreko ikastereduan onartzen diren guztiak erabili ahal izango dira.

5.2.– Bestelako baldintzak.

5.2.1.– Urrutiko aurrez aurreko saioetan ikastaro-moduluaren ordu guztiak emango dira eta ikastaldearen jarduerak ordutegi zehatzetan eta ikasle guztiekin batera burutuko dira. Urrutiko aurrez aurreko saioek gutxienez 40 minutuko iraupena izango dute eskola-eguneko.

5.2.2.– Urrutiko aurrez aurreko saioak edozein e-learning edo b-learning plataforma erabiliz (GoToWebnar, Zoom, Jitsi, Microsoft Teams, Moodle/MoodleCloud,...) egingo dira.

5.2.3.– Ebaluazioak e-learning edo b-learning plataformak (Google Forms, Questbase, Socrative,...) erabiliz burutuko dira.

5.2.4.– HABEko teknikariek edozein unetan plataforma horietara sarbidea izango dute, burutzen den jarduera ikusteko.

5.2.5.– Era honetan antolatuko diren ikastaldeein 70 kolektiboa jarriko zaie matrikulazioaren jarraipenerako Q87 izeneko aplikazioan.

6.– Helburu zehatzetarako ikastaro bereziak.

1.– AISA, Dendaketan eta Ostalaritza ikastaroak: 60 irakastordu. Euskaltegiak ikastaro berezi hauek hasi baino lehen bideratu beharko du eskaria, eta bukaeran ebaluazio-fitxa osatua helaraziko du HABEra. Euskaltegi pribatu homologatuen kasuan, onartutako taldearen eskola-ordua, oinarritzko moduluaren bitartez babestuko da, euskaltegiaren ratioan eraginik izan gabe.

2.– Herri-administrazioek, erakunde pribatuek eta gizarte-eragileek, euskararen sustapena eta erabileraren normalizazioa helburu izanik, ESEP, LanHitz edo gutxienez udal-mailako zein erakunde pribatuen nahiz gizarte-eragileen plangintza batean sortuak eta txertatuak dauzkaten ikastaroak: gutxienez 60 irakastordu.

Kasu bakoitzean, eskariarekin batera dagokion erakundeak egin edo onetsitako txostena aurkeztu beharko du euskaltegiak. Eskarian ikastaro bereziaren bitartez lau hizkuntza-trebetasunetan lortu nahi diren helburuak zehaztuko dira. Honelako ikastaroen eskariekin hamar eguneko epean ezezko erantzuna jasotzen ez badute, onartuak izan direla ulertuko da.

3.– Barnetegi iraunkorretan trebetasun zehatzak lantzeko Gabonetako eta Aste Santuko barne-tegi ikastaro bereziak: egunean 6 edo 7 irakastordu, eta gutxienez, 30 irakastordu.

4.– Euskaltegietan aurrez aurreko jardunean trebetasun zehatzak lantzeko Gabonetako eta Aste Santuko ikastaro bereziak: egunean 5 irakastordu, eta gutxienez, 30 irakastordu.

7.– Malgutasuna.

Aurreko oinarrietan aurreikusitako ikastaroez gain, euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jarritako irizpideen arabera helduen euskalduntzearen esparruan beste ikastarorik emateko asmorik badu, eskabide arrazoi-tua aurkez lezake HABEren zuzendari nagusiaren aurrean ikastaroa hasi baino hamabost egun lehenago. Zuzendaritza honek helduen euskalduntzearen sustapenari begira eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jarritako lehentasunak kontuan hartuz ebatziko du eskariaren gainean. Erabakia ezezkoa balitz, HABEren finantzaketatik at gelditzen dela ulertuko da.

III. ERANSKINA

Euskaltegi pribatu eta autoikaskuntzarako zentro homologatuei dirulaguntzak 2020-2021 ikasturterako
(Kodea.: 1045505)

Egoitza Elektronikoa eskuragarri dagoen formularioa

ONARRIZKO DATUAK**Organo instruktoreari zuzendua:**

HABE, HELDUEN ALFABETATZE BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

Datu pertsonalak:**Titularra**

Identifikazio-dokumentua: _____ *Zenbakia: _____

*Erakundearen izena: _____

Erakundearen izenak IFK txartelean agertzen den berbera izan behar du.

Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua: _____ Zenbakia: _____

Izena: _____

Lehen abizena: _____ Bigarren abizena: _____

Sexua

- Gizona
- Emakumea
- Beste sexu-identitate bat

Zein lurraldetan daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak

*Lurraldea: _____

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

Oharra: 10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzeko ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

* Posta elektronikoa _____

Mugikorra _____

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza

- Euskara
- Gaztelania

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Eskatzaileak aitortzen du:

Bateragarritasun-adierazpenak

- Ez du jasotzen helburu bera duen laguntza edo dirulaguntzarik administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
- Jasotzen ari da helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batetik (atal honetako datuak “Beste finantziazio-iturri batzuk” eremuan zehaztu beharko dituzu).
- Eskatu du helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batean, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak “Beste finantziazio-iturri batzuk” eremuan zehaztu beharko dituzu).

Erantzukizunpeko adierazpenak

- HABEren euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentrohomologatuen Erregistroan inskribatuta dago, eta datu guztiak egunean dauzka.
- Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
- Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean.
- Ez da dirulaguntzen itzulketagatik hasitako eta artean izapidetzen ari diren prozeduretan parte, eta horrelakoren batean parte hartu izanez gero, prozedura horiek amaituta egon behar dute.
- Onuradunak giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatuko ditu eta, ondorioz, ezin izango ditu agerian eduki, horiei dagokienez, herritarrentzako laidogarriak izan daitezkeen, erabiltzaileen duintasuna urra dezaketen edo indarkeria iradokitzen duten ikurrak edo elementuak.
- Onuradunak HABEri helarazten dizkion datuen gaineko interesdunei beren datuekin gauzatzen duen tratamenduari eta transmisioari buruzko informazioa alde aurretik helarazi die.
- Euskaltegi onuradunak, COVID 19ak eragindako pandemiari aurre egiteko osasun-agintariek edo arlo horretan eskumena duten gainerako agintariek ezarritako prebentzio eta higiene-neurri guztiak beteko ditu, oinarri hauetan aipatzen den deialdiaren bidez diruz lagundutako jarduerari dagokionez, bai jardueraren antolamenduari dagokionez, bai eta jarduera gauzatzeko erabiltzen diren lokalen ezaugarriei dagokienez ere, eta jarduera horri aplikagarri zaion beste edozein neurrietan ere.
- * Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.
- * Deklaratzen dut hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Baimenak

- Ikasle, irakasle nahiz beste langileen datu pertsonalen eta ikas- irakas-prozesuen garapenetik eta kudeaketatik eratorritakoen datuen tratamenduari dagokionez, onuradunak jasota dauzka ikasleek, irakasleek eta beste langileek emandako baimenak, datu horiek gorde ahal izateko, baita HABEri emateko ere, erakunde honek azaroaren 25eko 29/1983 Legeak atxikitzen dizkion eginkizunak bete ditzan.

ORGANO INSTRUKZIO-EGILEAK OFIZIOZ KONPROBATZEA

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honetako organo instrukzio-egileak datu hauek konprobatuko ditu eskumena duen administrazioan:

- Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (EAEko Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia)
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia (GSDN))
- Espresuki aurka egiten diot prozedura honetako organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua)

Oharra: onuradunak kontrakotasun espresua agertu badu, prozeduran eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

ERANTSITAKO DOKUMENTUAK

- Jardueraren aurreikuspena
- 2020-2021 ikasturterako Plana